

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrek, **2025eko abenduaren 11n**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

"4- Norgehiagoka arau bidez, kultur proiektu (A lerroa) eta sormen (B lerroa) dirulaguntzetara aurkeztu diren onuradunen izaera berrestea, aurkeztu diren zuriketak aztertu eta bakoitzari dagokion dirulaguntzaren bigarren zatia (%40) ordainketa onartzea eta bideratzea. Espediente zbk: 2025 ZDK0003.

Alkatearen 2025eko abenduaren 9ko proposamenak honela dio:

" Eurne Soraluze andreak (Udal Kultura Teknikariak eta batzordeko idazkariak) abenduaren 9an egindako txostenean (CSV zkia: ESKU3502dbfb-8cbf-47ef-a988-6d1bcf8cbbdf) honako proposamena egin du:

Gertakariak:

.- Lehenengoa.- Norgehiagoka prozedura bidez, 2025ko deialdian , guztira 94.600 euroko gastua baimendu zen eta udal aurrekontuen **1.0800.480.334.00.01.2025 (355)** " diru ataletik eta bere lotespen mailatik ondorengo eran banatu zen :

A lerroa: kultur programak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak. Guztira lerro honetarako 77.000 euroko gastua baimendu zen.

B lerroa: kultur sormen lanak finantzatzeko Dirulaguntzak. Guztira lerro honetarako 17.600 euroko gastua baimendu zen.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Zuriketa aurkezteko tramitea amaitu ondoren, oinarri arautzaileetan zehazten diren balorazio eta zuriketa irizpideen arabera, onuradunek aurkezturiko kultur programa (A lerroa) eta sormen (B lerroa) lanen jardueren memoriak eta zuriketak aztertu dira.

Bigarrena.- Kultura Batzordean, kultura Teknikariak, egindako ebaluazio-balorazio txostena azaldu du. Ikus txostena.

ESKUF8455756-0faf-401f-a663-78c7962663aa

Ebazpen-proposamena:

Ebaluazio-balorazio-txostenean aipaturikoa aintzakotzat hartuta, abenduak 9ko dataz egindako Kultura Batzordean ebaluazioa eta balorazioa bere egin eta onartu ditu Kultura Batzordeak, eta proposamena ebatzi ondoren, Organo Eskumendunari, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari honako hau proposatzen dio:

Lehenengoa.- Aurkezturiko balorazio eta zuriketak onartzea eta bigarren zatiaren (%40) ordainketa bideratzea proposatzen dio. Ikus dokumentuari atxikitzen zaion taula.

Bigarrena.- Burrunba Faktoria Kultur Elkartek aurkezturiko sormen lerroko egitasmoaren zati bat ez duenez gauzatu, emandako bigarren zatiaren 424,67 euro (%40) ordainketa ez bideratzea proposatzen dio. Ikus taula.

Hirugarrena.- Nabarralde Fundazioa: aurkezturiko gastu-sarreraren taula aintzakotzat hartuta, gainfinantziarioa ematen denez, dirulaguntzaren bigarren zatia 451,44€ izatea onartzea. Ikus taula.

Laugarrena.- Ilunpetan Argazki Elkartea: aurkezturiko egitasmoaren zati bat ez duenez gauzatu (programaturiko tailerrak eta ikastaroak ez dira gauzatu), emandako bigarren zatiaren 798€ euro (%40) ordainketa ez bideratzea proposatzen da. Ikus taula.

Araudi aplikagarria.

Lehenengoa.- Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta. 38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: "Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."

Bigarrenkoa. 34.3 artikulua: "Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

"1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz

eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Horrenbestez, Kultura Sailaren irizpena aldekoa dela kontuan hartuta, Nik, Izaro Elorza Arreguik, honako ebazpen proposamena egiten diot Tokiko Gobernu Batzarrari:

Proposamena:

Lehenengoa.- Kultura Batzordeak egindako proposamenean zerrendaturiko norbanako zein elkarte bakoitzari onuradun izaera berrestea.

Bigarrena.- Elkarte zein norbanako bakoitzari dagokion dirulaguntzaren bigarren zatiaren likidazioak onartzea eta bigarren zatiaren (%40) ordainketak bideratzea. Ikus dokumentuari atxikitzen zaion banaketa taula.

Hirugarrena.-Burrunba Faktoria Kultur Elkartea: aurkezturiko egitasmoaren zati bat ez denez gauzatu (bigarren magazina ez da gauzatu) proiektua garatzeko emandako bigarren zatiaren (424,67 euro) ordainketa ez bideratzea, onartzea.

Guztira ematen den dirulaguntza: 637,01 €

Laugarrena.-Nabarralde Fundazioa: aurkezturiko gastu-sarreraren taula aintzakotzat hartuta, gainfinantziarioa ematen denez, dirulaguntzaren bigarren zatia(451,44€) izatea onartzea eta ordainketa bideratzea.

Guztira ematen den dirulaguntza: 2.085,44€

Bosgarrena.-Ilunpetan Argazki Elkartea: aurkezturiko egitasmoaren zati bat ez denez gauzatu (programaturiko ikastaroak eta tailerrak ez dira egin) emandako bigarren zatiaren (798€ euro) ordainketa ez bideratzea proposatzen da. Ikus taula.

Guztira ematen den dirulaguntza: 1.197€

Seigarrena.- Guztira 35.976,75€ko (A lerroa %40 : 29.361,44 € eta B lerroa %40: 6.615,31€) gastua onartzea eta udal aurrekontuen 10800.480.334.00.01.2023 (355) diru ataletik eta bere lotespen mailatik.

Zazpigarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Zortzigarrena.–Dirulaguntzaren onuradunen ordainketaren (%40) Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bederatzigarrena.– Erabaki hau kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Onuradunen dirulaguntzen banaketa proposamena:

A LERROA

Onuraduna	Dirulaguntza 2025	60%	40%
Algaraz.	4175,93	2505,5585	1670,3723
Zizelkatzaileak.	4175,93	2505,5585	1670,3723
OMT	3150,00	1890	1260
Nabarralde.	2085,44	1638	451,44
Txinparta Bertso Eskia.	3298,40	1979,04	1319,36
Oñati Abesbatza.	5304,56	3182,7365	2121,8243
Lizargarate.	3300,50	1980,3	1320,2
Ilunpetan.	1197	1197	0
OLR.	2031,53	1218,9204	812,61357
OGA.	10496,26	6297,7552	4198,5035
Aequus Ensemble	2595,85	1557,5094	1038,3396
Ganbara Kantu Eskola	9254,77	5552,8594	3701,9063
Oñatz Dantza taldea	11286,30	6771,7798	4514,5199
Hots Abesbatza	9254,77	5552,8594	3701,9063
Zubillaga: Ereiten	2031,53	1218,904	811357
Arantzazuko Adiski-deak	1918,67	1151,2026	767,46838
	75.557,44€	46200€	29361,44€

ESKUf8455756-0faF-401f-a663-78c7962663aa

B LERROA

Onuraduna	Diruz lagundu den lana	Dirulaguntza 2025	60%	40%
Oñatz Dantza Taldea.	Inauterietan dantzen grabaketa.	350,00 €	210,00 €	140,00 €
Artixa Kultur Elkartea	1502ko Hildakoen ofizioa argitaratzea eta hildakoen gregoriar meza euskaraz grabatzea	1.262,83 €	757,70 €	505,13 €
Ernesto Unzuurrungaza Galdos	Oroitzapenak liburuaren idazketa. Oñatiko eta Euskal Herriko historia hurbilari buruz, egilaeran oroitzapenetan oinarritua.	860,54 €	516,32 €	344,22 €
Mikel Marco Lopez	Rama Inn Taldea (3. edizioaren grabaketa, masterizazioa, diseinu eta biniloen fabrikazioa eta kopia).	1.262,83 €	757,70 €	505,13 €
Lukene Igartua Egaña	Mila bilduma, 3 zenbakia: Torreko Zubiarena - haur liburu ilustratua-.	1.061,68 €	637,01 €	424,67 €
Lukene Igartua Egaña	Mila bilduma, 4 zenbakia: Kolorrena/Aulkiarena - haur liburu ilustratua-.	1.061,68 €	637,01 €	424,67 €
Karmelo Alberdi Onraita	Txuletons zuzenean: Kantu batzuen grabaketa/nashasketa eta masterizazioa + Abenduak 23ko kontzertuaren Cda	1.061,68 €	637,01 €	424,67 €
Algaraz Ikuskizun Elkartea	" Lagunekin Topal- Zortzi urteko ibilbidearen ospakizuna" - Ikuskizun berriaren grabaketa, bideo eta argazki edizioa.	903,00 €	541,80 €	361,20 €
Ander Lizarralde	" Oñatiko Euskara Zaharra" liburuxkaren edizioa.	560,00 €	336,00 €	224,00 €
Artixa Kultur Elkartea	" Bestaldetik etorriak " liburua (hiltzorian egon diren 20 Onatiarren herritarren testigantzak jasotzen duena).	1.262,83 €	757,70 €	505,13 €
Artixa Kultur Elkartea	Oñatiko eta Oñatirekin lotutako inguruko arbasoen lanbideak aztertzen duen memoria-historikoa.	860,54 €	516,32 €	344,22 €
Host Abesbatza	A.M.A: Emakumearen irudia omentzeko kontzerturako partitura konposaketa eta testuak.	1.061,68 €	637,01 €	424,67 €
Ganbara Kantu Eskola	" Gure musika sortuz: Mari Errauskin". Ipuin musikatua	1.061,68 €	637,01 €	424,67 €
OGA	Kalean: Bizitzaren katedrala emanaldirako konposizio eta testu originalen sormen lana.	1.061,68 €	637,01 €	424,67 €
Mila Modu musika taldea	Mila Modu taldearen laugarren diska grabaketa	1.262,83 €	757,70 €	505,13 €
Ilatargi Astronomi Taldea	Maiatzean kultur Etxean antolatu duten erakusketarako argazkien imprimatze lanak.	118,82 €	71,29 €	47,53 €

BSKU18455756-0faf-401f-a663-78c7962663aa

Arantzazu Egaña	" Xabin Egaña" artistari eskainitako publikazio monografikoa.	1.463,97 €	878,38 €	585,59 €
Burrunba Faktoria Kultur Elkartea	Burrunba fanzine fisikoa etxe etxe banatzea	637,01 €	637,01	- €
		17.175,28€	10.559,97€	6.615,31 €

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko go-bernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez."

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikuluaaren arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

